

• Muac Teatro clown taldearen "Morros de col" antzezlan. Kontadores Gaztegunean, 19.00etan.

Dantza

• Espainiako Dantza Konpainiaren emanaldia. Kursaal entzutokian, 20.00etan.

Osteguna

20

Kontzertua

• Ruper Ordorikaren emanaldia. Egiako kultur etxean, 21.00etan.

Zinema

• Zine foruma: Joel Coen zuzendariaren "Muerte entre las flores" filma. Ernest Lluch kultur etxean, 19.00etan.

Ostirala

21

Kontzertua

• Narco eta Dawholeen chilada taldeen kontzertua. Egiako kultur etxean, 22.00etan.

Zarzuela

• Sasibil elkarte lirikoaren "El caserío" obra. Antzoki Zaharrean, 19.00etan.



NCC BUKOWSKIN

Nuevo Catecismo Catolico talde donostiarra buru belarri ari da "Scarred for life" izeneko bere seigarren diskoa aurkeztzen. Datorren urtean hamar urte beteko dituen punk-rock talde honek kontzertua emango du hilaren 16an, igandea, Egiako Bukowski tabernan. Kontzertua 20.00etan hasiko da.


Haur antzerkia



Hilaren 15ean, larunbata, Hortzmu-ga taldeak "Badum mundua" obra taularatuko du Lugaritzen. "Badum" izeneko munduan bizi diren Toto eta Dota dira antzezlanaren protagonistak. Emanaldia arratsaldeko 18.00etan hasiko da.

Nacho Duatoren Konpainia Kursaalean

Hilaren 18 eta 19an Espainiako Dantza Konpainia Kursaalean izango da. Zuzendari lanetan Nacho Duato ariko da. Londres, Bruselas eta New Yorken dantza ikasketak egin eta gero, hainbat talde gidatu ditu Duatok. 1990ean Espainiako Dantza Konpainiaren zuzendari izendatu zuten. Nacho Duatok hiru koreografia aurkeztuko ditu gurean: "Arcangelo", "Cult Race" eta "White Darkness". Emanaldiak 20.00etan hasiko dira.



GAZTETXULO

EROS EZAZU KIOSKOAN



- Gero arte Asgarth!
- Durangoko Azokari begira: musika eta liburuak barra-barra
- Ilazki Serrano, Bermeoko betizua
- Alkohola eta autoa, gau konbinatu kaskarra
- Gasteizko gaztetxea oztopei aurre eginez